

MIKEL URDANGARIN  
BADENA ETA EZ DENA



ABESTIEN LETRAK



:::

## Hiru ahizpatik bigarrena

Hiru ahizpatik bigarrena,  
Miren Sorkunde izena,  
Aitite Mikel eta Amama Kontxarena.

Zuri kantatzera nator.  
Zuri, danetan guapana.  
Doinu honek ekarri nau zuregana.

Deustuar baten emazte,  
gazterik ezkondu, gazte,  
seme-alabak hiru ekarri zenduzen.

Eta bilobak ondoren,  
katea ez bait da eten.  
Badakizu, Peru etorri da azken.

Berba ederrik ez dago  
Babeletik Zorrontzaraino,  
zutzat balio leukenik  
ez, ez dago.

Ta deskuido z bat balego  
bardin dosta honez gero.  
Zuri begire ta ixilik  
dot gurago.



Zuk emondako euskara,  
nigan bizi dan taupada.  
Zure eskuak, zure azken besarkada.

Zure ahotsa, zure arnasa,  
zure biziraun beharra,  
zure isilpeko negarra,  
zure indarra.

Zatoz, ametsetan, zatoz.  
Dantzatu gaitezen behingoz!  
Zatoz esna, zatoz lotan  
baina zatoz.

Nire min eta bizipoz,  
nire odol, nire bihotz:  
Zatoz egun argiz, zatoz gauez  
baina zatoz.

Hiru ahizpatik bigarrena,  
izan geinkean onena,  
aitite Mikel eta amama Kontxarena.

Zuri kantatzera nator.  
Zuri, danetan guapana.  
Miren Abasolo Iza  
geure ama.



⋮

## Haitzetan

Haitzetan lainoen artean, ortozik jaku egoten  
hazia barruan ernetan, jatorkonari berba  
herri bat ikusiko dozu negar eta zaurietan  
ukenduz zeuk bakarrik osatuko dozuna  
aita hil dautzue seme maltzurren egunean  
sugarrik ez dozu gurako datozen Jondeunetan  
eguzkiak emon daien indarra eskuei  
zoli, haitz eta abarrots, Auñamendiko basoetan  
haitzetan, lainoen artean, ortozik joku ibiltzen  
hazia barruan ernetan jatorkonari berba



:::

## Itsasoan euria

Itsas bazterrean  
eman zenidan hitza  
apar gainean bitsa  
uhin gailurrean  
Hodeitzan aingura  
itsasoan euria  
maite berba zuria  
promes eder hura  
Oihanean isilik  
jauzi dan arbola arbola arbola  
ez zoru ez sabairik  
ez daukan etxola etxola etxola  
Itsas bazterrean  
eman zenidan hitza  
apar gainean bitsa  
uhin gailurrean  
Hodeitzan aingura  
itsasoan euria  
maite berba zuria  
promes eder hura  
Inoiz inork ikusi  
ez duen ederra ederra ederra  
inork entzun gabeko  
kantuen alferra alferra alferra  
malko bat hondarretan  
zulo bat airean airean airean



beleak elurretan  
eleak haizean haizean haizean  
malko bat hondarretan  
zulo bat airean airean airean  
beleak elurretan  
eleak haizean haizean haizean



:::

## Hauskor

Udazkena da bazterrean.  
Berdez jantzi zara, zirikatzen.  
Eta ni berriz hain hauskor.  
Eta zu berriz horren suhar.

Bai, agian, bizkarrean jarriko nizuke eskua,  
hura jaitsi gerrira, dantzatu.  
Ohantzean etzan, lokartu eta iluntzean esna.

Desertua da kale honetan.  
Lainoz jantzi zara, emankor.  
Eta ni berriz hain hauskor.  
Eta zu berriz horren suhar.

Bai, agian, bizkarrean jarriko nizuke eskua,  
hura jaitsi gerrira, dantzatu.  
Ohantzean etzan, lokartu eta  
iluntzean esna.

Eta zurera sartuko banindu gogoak,  
sorbaldetan pausa, jaitsi magalera.  
Sabelera josi, lokartu eta  
ahantzuran esna.



:::

## Agian irailean

Iraila amaieran hil zituzten bostak  
Tiroz eten zuten  
Lagunaren kanta  
Gerora be, sufritu gaitu herriak.  
Hilabete kutun, udazken bezpera  
Orbelak poliki estali gaitzala  
Eternitatea daramagu, deslai.  
Lur gorri, mahastietan  
Uda lehorrak  
Uzta berria  
Musika airean, uzta berria.  
Zure eguzkia, nire ilargia  
Horra bi aberri, lur zati berean  
Bata zurea da bestea nirea.  
Eta bizi libre eroen artean  
Dragoi hegalariz, lamiez eta eztiz  
Gobernatuko den erreinu gordian.  
Goiztiar, arrastidiar  
San Mikeletan  
Kantu ta dantza mozkortu gara  
San Mikeletan.  
Soinean bi hego egin nahi dut hegaz  
Hego bakarragaz, ezinezkoa da  
Hego bakarragaz, nekaturik nago.  
Desegin dadila koldarren tropela  
Inoiz deskuiduan han izan banintzen





Aurrerantzean ez, ez naiz han izango.

Itsas enbatak irailan

Zulatu ditu

Harriki ezinak

Porlanezko hormak

Itsas enbatak.

Badoa iraila, uda biharamun

Eguna hoztu du, ez da desagertu

Traineru garaituak zekarren bitxa.

Agian irailan hurrengo irailan

aukera berri bat enegarrenean,

ikasiko dizut zer den maiatzea

Urrun, banoa urrun

Nigandik urrun,

Zugandik gertu

Lagun eroak,

Ta haizea lagun

hegaz

hegaz

Haizea lagun

Dragoi hegalariz

Lamiez eta eztiz

Zugandik gertu!



:::

## Kontatu berriz

Desberdina omen zara  
Desberdina auzo-jiran  
Ez al da ba kreatura oro  
Bakar gure izadian?

Konta berriz zeure ametsak  
Baratxe ditut entzungo  
Hazten zaren bitartean  
Bidelagun nauzu izango

Animalia alderraiak  
Itsas-piztia, lore-basak  
Unibertsoko izar denak  
Dizdiz zure burmuinean

Ez laga gizarteari  
Zure argiaren itzalgarri  
Aienatu izu-ikarak  
Mundua zain dago

Desberdina omen zara  
Desberdina, ez niretzat  
Konta berriz zure ametsak  
Bidelagun nauzu izango

Itsas-piztia, lore-basak



Konta berriz zure ametsak

⋮

## Euria ari du

Gauez jaiki naiz  
sabaian behera  
euria ari du,  
kafea baltza,  
begiak lurrun  
euria ari du.

Nahi nuke amets  
nahi nuke lo  
itzartu gero  
ta oroitu ez  
burutik kendu  
irudia  
sabaian behera  
datorren euria.

Mahai gainean  
ordu joanak,  
ogi birrinak,  
nire barnean  
gela bat hutsik  
itoginak.

Nahi dut aterki  
baten bildu  
ta kiribildu,



berriz umeki  
neuk ez baneki  
hautsi naizela  
tanta bat lurrean  
bezala.

Puskak biltzeko  
sasoia da  
egurastu  
dena  
ez dut gehiago  
euririk nahi  
sabaian behera.  
Nahi nuke amets  
baten bildu  
ta kiribildu  
ta oroitu ez,  
burutik kendu  
hautsi naizela  
sentitu atertu  
duela.

Berriz hasteko  
sasoia da  
zutundu ta  
aurrera  
ez dut gehiago  
euririk nahi  
sabaian behera.



:::

## Bazkalosteko kafea

Esperantzarik gabeko zenbait  
Debekatuak dezente  
Mila galduak eta hainbeste  
Gau bakarreko aterpe  
Askok laugarren begiradatik  
Betirako dirudite  
Bazkalosteko kafeak bezain  
Usai goxoa daukate  
Nik zurekiko dudana ere  
Halakoa litzateke  
Nire bizitza laburra baina  
Zein dezberdina izan den  
Zu ezagutu aurretik eta  
Zuk musu eman ondoren  
Zure iparrak noraezaren  
Lekukoa hartu zuen  
Ta denboraren oneritziak  
Erakusten du ondoren  
Nire bihotza zure neurrira  
Nola egina dagoen  
Zurekin nahi dut Maxian barna  
Karroa zoro eroan  
Baita erantzi nahi dizkizudan  
Prakak eroatera joan  
Bertan zaudela sentitu nahi dut  
Ohera sartzerakoan



Lotsaren mugak lehertuarazi  
Ta gehiago delakoan  
Erloju hotsak esnatu eta  
Zu izatea alboan  
Momentu batez nire bertsoak  
Ametsetara bidaliz  
Zure usaiak atzeman ditut  
Zoriona jo dut begiz  
Hankak lurrera ekarri ditut  
Irribarre salatariz  
Bazkalostera itzuli eta  
Hamarmilagarren aldiz  
Aspaldi hartu dudalakoan  
Kafea hoztu zait berriz.



:::

## Egun argian

Ilunaren arerio  
egun argian jario  
atzo gauean gozatuari  
zure usaina dario  
zeru gainean bi laino  
zoaz, eguzki, goraino  
zelan ez dekot beste gogorik  
zeuri kantetako baino  
sola loraz polito  
nor ez da udabarriko  
zain nago zure udagoiena  
barriro noz etorriko  
asuneri udarte  
krabelina batu jake  
hain lotsatia ez bazina bai  
zu biluztuko zinake  
badator gaua astiro  
badeko nahiko motibo  
maite nozula dakidan arren  
esan eistazu barriro  
haizeak ohiko egarriz  
leizarrak dantzan darabiz  
eskuok zure azal gozoa  
omendu gurean dabiz  
kirikolatza karreran  
iturria non ete dan



laztana maite zaitudalako  
behar dot zuretik edan

....

## Anek idatzi dit zutaz

Anek idatzi dit zutaz  
Diño ondo zaudela  
Oslon bizi zarela orain  
Hara ezkondu zinela  
San Antoniotan,  
Polpolera bidean  
Laino artean, bi amoradu  
Maldan gora...  
Jakin izan dut berandu  
Ama izan zinen Maiatzan  
Jon jarri diozu izena  
Jende onaren izena  
San Juan gaba zan, erre zenituen bekainak  
Ezpan moreak, azken Waltz-a eta ardo  
Ona...  
Anek idatzi dit zutaz  
Diño ez zarela aldatu  
Beti lez oinak aidean  
Kantatu eta dantzatu  
Eta ez nau batere harritu  
Zuk amesten jarraitzen duzu  
Nik oindik eskuak hotz ditut  
Anek kontatuko dizu  
Salda beroa, Urriko ferietan





Udaberri zan baina, Bilboko Plaza Berrian  
Agur maitea, altza kopa, bihotzak  
Gora.

⋮

## Badira hiru aste

Izkin hontatik idazten dizut  
azken aldian bezala  
egia da bai sasoi honetan  
hotza egiten duela  
neska gazte bat ezagutu dut  
hiru aste badirela  
esango nuke bere begiek  
erraz sorgindu nautela  
Azken bidai hau ez duzu izan  
etxe ondotik ihesa  
nigandik hurrun aurkitu arren  
hara itzultzeko ametsa  
zuekin beti oroitzen banaiz  
ahaztu naizenik ez pentsa  
sentimenduak esaten baina  
ez da hain gauza erreza

Orain goizean pozik hartzen dut  
mendebalderako trena  
harrizko zoru ahaztuetan  
biderik eta zaharrena  
bizitzak sarri erakusten du



badena eta ez dena  
inoiz latz hartu banindu ere  
gaur gozo hartu nauena  
Lantzean baina, egun luzeetan  
bihotza egoten da triste  
agindutako promesa hura  
ezin kunplidu nezake  
«loriak udan» kantatzen baitut  
inoiz gutxitan ez uste  
letrak ez ditut oraindik ahaztu  
akordatzen naiz hainbeste



:::

## Munduari begiratzeko modu bat

Munduari begiratzeko modu bat,  
Laguntzarrekin kantatzeko modu bat,  
Horman eguzkia hartzeko modu bat,  
Itxaroten jakiteko modu bat.  
Pagoak ukitzeko modu bat,  
Azala irakurtzeko modu bat,  
Hego-haizea usaintzeko modu bat,  
Autoan negar egiteko modu bat.  
Ez onena agian,  
Ez ederrena agian,  
Zaharregia, txikiegia agian.  
Begietara begiratzeko modu bat,  
Galderak egiteko modu bat,  
Eskutik heltzeko, heltzeko modu bat  
Amets egiteko modu bat.  
Ez onena agian,  
Ez ederrena agian,  
Zaharregia, txikiegia agian.



:::

## Kideari

Zer esango, adiskide kutun,  
ez naiz aldatu hainbeste.  
Hau mundu hau, argi eta ilun,  
onartu egin dut, honenbestez.  
Eder basoen berdetasunak  
eta hiri zubien lizunak  
zoratzten naute oraindik.  
Bihoztu arren etorkizuna,  
zalantzarako daukat tasuna.  
Hain urrun zaude nigandik.

Ohikoa amesten jarraitzen dut,  
honetan jartzen dut bizia.  
Berehala jartzen nau zut  
betiereko aurreiritziak.  
Etxean hildako emazteak,  
eskubide duinen ebasteak,  
arrazoibide lausoak.  
Injustizia ez da gaztea,  
ez da gaitza hori ebaztea  
behatuz gure pausoak.

Ezkortasunak gogaitzen nau,  
begiratzen dut argia.  
Zorigaitzak beharrean dirau  
baina behin gatoz bizira.



Berdin berdina ditut akatsak,  
zuzenduko dizkit azken hatsak;  
marketsa naiz zorionez.

Ez nau galaraziko azken hatsak,  
agudo abailtzen nau mahatsak,  
maitemintzen naiz pertsonen.

Zure indigentzia, beraz,  
egiten dut gehien mira.  
Kulturaz, bizitzaz, denaz,  
problema deus ez badira.

Egia izaten da bakuna,  
errealitatea zurruna  
eta bakana loria.

Lortu nuen denok nahi duguna:  
zu bezalako mutil laguna  
ezagutzeko zoria.

Zer esango, adiskide kutun,  
ez naiz aldatu hainbeste.  
Hau mundu hau, argi eta ilun,  
onartu egin dut, honenbestez.



:::

## Non geratzen den denbora

Gure baitango lurraldeetan  
Non geratzen den denbora  
Non ez dagoen arnas biderik  
Non ez goazen inora  
Non oihukatzen hurbiltzen garen  
Erraldoiaren ondora  
Igo nazazu nire mendira  
Zure gailurretik gora  
Egunez zu bizitzera  
Arimak zenbatzera  
Urrun nabigatzera  
Elur gazietan  
Igo nazazu nire mendira  
Aurki dezadan bidea  
Askatu nadin zure loturaz  
Behar dezadan airea  
Ez nadin izan jainko lurtiarra  
Bai ezinen bidaidea  
Igo nazazu nire mendira  
Zu ez baitzara nirea  
Egunez zu bizitzera  
Azken mugen ertzera  
Lainoen agurtzera  
Elur gazietan